

- **Entzutekuak:** Tabernari berriak Ezoziko futbol zelaietan
- **Kultura:** Kupela eta Sexperience San Andresko jaietan

soraluzeko
hamabostekaria **246.** alea
2011ko uztailaren 1ean

@ pii ni lean



Irene Alvarez
Euskadiko Boulder
Txapelduna



Boulder Liga Herritola
2011
Irene Alvarez txapelduna
TXAPELDUNA



FRESATZEKO ETA MANDRINATZEKO MAKINAK FRESADORAS-MANDRINADORAS



SORALUCE

Soraluce S. Coop.
Barrio Osintxu s/n
20570 Bergara
Gipuzkoa

Tel. +34 943 76 90 76
Fax: +34 943 76 51 28
soraluce@soraluce.com
www.soraluce.com

2011 San Andresko Jaizak Soraluzen

GASTIEN EGUNA UZTAILARIK 9, ZARPUTUNA

Eguerdiko 14.00etan jaiz hasiera kanpai bueltarekin.
18.00etan Emakumeen pala txapelketako finala.
20.30etan **HERRI HERRI***
25.00etan **SEXPERIENCE** eta **KUPELA**ren kontzertua.
02.50etan Txerri-harrapatza eta txokolatz jana.

JAI EGUNA UZTAILARIK 10, DOMERNA

12.30etan Meza.
13.00etan Pelota partiduak.
13.00etan **JAIUREGI / TXOTEGI - MUGURUZ / REZUST**
UNA eta **ENAITZ** trikitilariak eta
UNA GASTELUMENDE eta **MIRN AMURIZ** bertsolariak.
14.30etan Bazkaria bertsolariekin.
18.00etan **III. SAN ANDRESKO HERRI TXAPELKETA**.
100 kiloko harria 5 minutuan zinek jasoaldi gehiago eman.
19.00etan Zezentxoak eta poniak (Bergaratik).
21.30etan Herriak elkartzan.

AUZOKUEN EGUNA UZTAILARIK 11, ASTELEHENNA

12.30etan Meza.
13.00etan Umzendako jolasak.
14.00etan Jizotamiz bazkaria frontoian.
Bazkalostean **LIZISO ETA EGUNA** bertsolariak eta
LURRI eta **LUTXURDIXO**ekin erromeria.
19.00etan Emakumeen Bola Jaria.
20.30etan Herria eta erromeria.

* **HERRI HERRI**RENKO TXARTELEK
Egunerako bertan salduko dira San Andresko elkartzan.
Menua: Entsalada, Bakeleku tortila, Bihizakia, Postrea, Kofea, Kope. **Precioa:** 15 euro



Antzezleak:



San Andres Elkartea

Laguntzaileak:



Soraluzeko Udala

**IÑIGO URIBETXEERRIA****IRATI TREBIÑO**

KALTE-ORDAINAK NORI?

Aupa Irati!!! Azelan duaz azken egunetako beruak?? eusteko moduan?? hala opa denoi.

Ea, oraingoan gai pila bat izan det buruan, baina azken momentuan egunkarian ateratako notizia tiki, triste eta garrantzi gutxiko bati heldu diot. Nire ustez ordea garrantzi ikaragarria izan beharko lukeena.

Pasa den astean zetorren artikulu txiki eta galdutako ez dakit zenbatgarren orrian LABek salatzen zuela diputazioko politikoen aldaketa 900.000 euro kostatuko zitzaigula herritarroi. Nola? Ba bai, hauteskudeen emaitzen arabera diputazioko postuak uztera behartuta dauden politikoei kalte-ordaina ematera behartuak omen gaude. Diputatu eta zuzendariei 254.431 euroko kalte ordaina, eta horrez gain hauek urte osoko langabeziaz kobratzea erabakitzen badute 891.354 eurorainoko gastua izan daitekeela.

Besteak beste LABek dio diputatu nagusiak 7.333 euroko diru ordaina jasoko lukeela ez dagokion lanpostuan ez jarduteagatik, eta gainera urte oso bat langabezian egonez gero 2.937 euro hileru.

Lege hau 2007an onartua izan zen orain irtetera behartuak daudenen artean. Eta guk ez genekin ezer? Nolatan ez gara enteratzen horrelako gauzetaz? Zenbaterainoko zikinkeria dago hor atzean? Zergaitik pentsatu behar dugu politikoak beharrezkoak direla?

Gaur egun, horrenbeste langabeziaz, zor, zerga, BEZ, murrizketa sozial eta abarren aurrean, zenbat denboraz eutsiko diogu?

Alerta laranja! Alerta gorria! Azken urtean sarri entzun duguna izan da, eguraldiaz berbetan. Baina benetan herria da alerta gorrian dagoena. Herria ez da morroia izateko jaio eta konturatuko dira.

Kaixo Iñigo! Berotu, berotu... eguzkiak baino gehiago berotzen gaitu sarri ingurura begira jartzeak, ezta? Ea hotean idazteko gai naizen, bidali didazun euro festako zeroetan galdu gabe. Tira, politikariek ahal dutena poltsikora eramaten dutela, horretarako legeak moldatzen dituztela, eta komunikabide deitzen ditugunek trapitxeo hauek n. orriko x artikulu galduan kamuflatzen dituztela ez da berria, ez? Herria ez dela morroi izateko jaio diozu, baina horretaz, herria bera konturatu beharko da. Politikari eta enpresa buruek euren pribilegioak borrokatuko dituzte, eta n. orriko artikulu txiki hori adibide bat besterik ez da. Gero eta zailagoa zaigu futbol emaitza, famatuen ligoteo, eguraldi iragarpen eta alerta dei artean, benetako albisteren bat identifikatzea. Distrakzioa da manipulazio mediatikoaren estrategia nagusietakoa, eta

berdin infantilizazioa, 12 urteko haurrak bagina bezala tratatzen bagaituzte, 12 urteko haurrek bezala erantzungo dugu. Sentimentaltasun epela bultzatuko dute, arrazonamendukritikoaren aurrean. Modan dago, modan jarri dute, ezjakin eta ergel izatea, eta guk sinistu egin diegu. Ez gara enteratzen eta ez zaigu axola.

Baina axola zaigunean? Kontuak eskatzen hasten garenean? Isiltzeko gogorik ez daukagunean? Orduan, gurea da erru guztia! Orduan, telezaborraren, politikari ustel eta gure soldata miserableen erantzule bakar bihurtzen gara. Beraiek gure nahiak bete besterik ez dute egiten. Horrela, gure bukuarekin haserretzen gara egunero 8 ordu lan egin ostean hil bukaerara iristen ez garelako, diputatu ohiak ezer egin gabe ia 3.000 euro poltsikoratzen dituen bitartean.

Herria ez da morroi izateko jaio, konturatuko al gara?

“**diputazioko politikoen aldaketa 900.000 euro kostatuko zaigu herritarroi**”

Iñigo Uribetxeberria


“**Distrakzioa da manipulazio mediatikoaren estrategia**”

Irati Trebiño

Goguan hartzeko

“**Diruak, diruagana egitten dau**”
Gotzon Garateren atsotitzak

GoZatu SAREAN



*paperean
ezin daitekeenaz!*

BIDEO berriak zintzilikatu ditugu!!!

San Juan suko argazkiak eta sorgin dantzaren bideoa
 "Sexu askapen mugimendua gaur egun" mahainguruaren bideoa
 baita ... Oreka Art-eko Ayesta beasaindarrari egindako
 bideo-elkarrizketa

...eta etorriko denaz!

- San Andresko jaietako argazkixak
- Santiago-Santa Anetako egitarauaren aurrerapena, argazki eta bideoak.

ALBISTE interesgarri gehiago!

"Soraluze Institutuak "eskola jasangarria" ziurtagiria eskuratu du"
 "Emakume Pala Txapelketako finala San Andresko jaietan"
 "Hamar plaentxiarrek Quebrantahuesos frogan hartu dute parte"

* Jarraitu gaitzazu webgunearen harpide eginez edo nahiago baduzu **Facebook** eta **Twitter** sare sozialetan.



Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari-
 esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1.,
 PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04
e-maila: aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe
 eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno,
 E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:**
 Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disei-
 nua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribetxebarria **Inprimategia:**
 Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:**
 G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek
 erakunde hauen
 dirulaguntza
 jasotzen du euskara
 bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZKO
 UDALA



GIPUZKOAKO FORU
 ALDUNDIA

bittartetik



Mikel Leunda
Zorte on, mutiko!

Bi urte edo badira lantokian kokagune berria daukadala. Herritarrak artatzeko bulegoan jarri didate mahaia, bazter batean. Lana amenoagoa bihurtu da eta, bidenabar, nire bizitza interesgarriagoa. Faltan botatzen ditut lehengo bulegokideak, kontzentratzea ere zailagoa da orain, baina aldaketa onerako izan dela esango nuke. Parez-pare daukat leihatila eta, ahalgina eginagatik ere, ezinezkoa zait herritarrek bulegariari esaten dizkietenak ez entzutea. Aurreko batean leihatilara doi-doi iristen zen mutikoa etorri zitzaigun. Hamar-hamabi urte bota nizkion, ez zituen gehiago izango. Gaztele-raz nahikoa txukun egiten zuen, nahiz eta igarrian zuen ez zuela hura bere hizkuntza. Arabiarra uste dut zela, marokoarra ziurrenera. Baimen-idatzia behar zuela azaldu zion bulegariari, oporretan Galizira autobusez bidaiatu ahal izateko. Bakarrik bidaiatu behar al zuen galdetu zion udal langileak eta baietz, izebaren etxera zihoala, ikasturtea amaituta. Beste izeba batekin omen dago hemen, Soraluzen, eta uda partean Galizikoak zainduko omen du. Amaren aipamenik ez zuen egin, baina pentsatu nuen jaioterrian geldituko zela. Burutik kendu ezinda daukat oraindik zorigabeko mutikoa. Lerro hauek irakurriko ez baditu ere, zorterik onena opa diot bizitzan, ez dauka erronka txikia eta, ez horixe.

((ENTZUTEKUAK))

Txaro Matias eta Katia Gustino, Ezozi futbol zelaiko tabernariak

Txaro eta Katia ama alabek hartu dute Ezozi futbol zelaiko taberna urtebetez kudeatzeko ardura. Txaro Pub Intxisu tabernako jabea izan da 22 urtez. Katia berriz sei urtez ibili da futboleko jokatzeko, tartean Sorako koloreak ere jantzi izan ditu. Ezoziko futbol taberna kudeatzen duten lehen emakumeak izango dira biak.

Zuei egokitu jatzue tabernako arduria. Zegaittik izan dala uste dozue?

Sorpresa izan da guretzat eta ondiok zuzendaritza batzordia-kin batu bihar gara egutegia eta ordutegia ondo zehazteko. Seguruenik datorren denboraldi hasieran, irailian, zabalduko dogu tabernia.

Ordutegixakin baina baldintza zehatzak ditzuzue.

Bai, partida edo entrenamenduren bat daganian bakarrik zabaldu ahal izango ditzugu tabernako atiak. Etekin gehixen asteburuetan etarako dogula aurreratzen dogu, talde danak orduan jokatzeko dabe eta.

Krisixan mamuaz zer dinezue?

Abentura barrixa izango da guretzat tabernia kudeatzia. Baina bizitzako arlo danetan moduan, ausardiarik bare ez dago aurrera egiterik.

Bezeruei zer eskainiko dotzazue?

Bezeruak ohiko produktuak eskatzen ditzue, kafia, bazkal



Txaro eta Katia gogotsu daude taberna kudeatzeko

osteko tragotxuak, garagardua, goxokixak... Jokalarixentzat txorizua eta saldia be egoten da, eta sukaldeko azpiegiturak emoten badabe, lapikotxo ezberdinak eskainiko ditzugu.

Zer dauka hobetzeko Ezozi tabernariak?

Azterketa zehatza egin bare daukagu baina lehenagotik badakigu kafetera baten biharra daguala, oin arte kafia lapikuakin egin da eta.

Zelaixan alokairuaz arduratuko zarie baita.

Futbol zelaixa alokatu nahi dabenak guri deitu biharko dosku eta guk txandak hartzen jardungo dogu. Zelaixa zabaltziaz eta ixtiaz arduratuko gara baita.

Kuriositatez, futbola gustuko dozue?

Sorako koloreak sentitzen baditzugu be, Erreala da gure talderik kuttunena.

“Partida eta entrenamenduetan zabalduko dogu”

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

HNOS. BENITO ANAIAK

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Elkarretaratze koloretsua ekainaren 28a aldarrikatzeko

Festak eta aldarrikapenak bat egin zuten ekainaren 28an, gay, lesbiana, bisexual eta transexualen askapenerako nazioarteko egunean. Egun honen harira 60 herritar inguru gerturatu ziren Behin Behineko Komite Arroxak Plaza Barrixan antolatutako elkarretaratzerara. 42 urte igaro dira LGTB mugimendua indartu zene-

tik eta ordutik gizarteak aurrerapauso batzuk eman ditu zenbaiten eskubideak onartzean, baina Behin-Behineko Komite Arroxaren iritziz, legeek eta instituzioek, euren modura kolektibo hauen aurka egiten dihardute. Besteak beste, gogoan izan behar da beraien generoa aldatu nahi duten pertsonak gaxoak direla jasotzen duela Munduko Osasun Erakundeak, "Genero Disforia" izenaren pean.

Sexu askapenaren aldeko jardunaldien amaiera

Behin-behineko Komite Arroxak ekainaren 28ko elkarretaratzearekin batera amaitu ditu hilabetez luzatu diren "Sexu askapenaren aldeko jardunaldiak". Baloraziorik ez dute egin oraindik, baina ekitaldietan jendea egon dela esan dute, batzuetan bestetan baino gehiago, eta orokorrean pozik daudela. Halaber, herriko komunikabideek egindako jarraipena nabarmendu dute.



Elkarretaratzearekin itxi dituzte jardunaldiak

Udako lehen egunak 40 graduren bueltan

Azken egunotako beroak azken mendeko ekaineko egunik beroenak izan direla jakinarazi du Euskalmet meteorologia agentziak. Adibide gisa, ekainaren 27ko arratsaldeko 16:30ean 38,5 gradu markatzen zituen Kalebarreneko termometroak. Kaleak hutsik, batzuk hondartzan eta besteek etxeko freskotatunaz gozatu zuten.



Martxan dago Debara joateko autobus zerbitzu berria

Eusko Tren enpresak ekainaren 20an Deba eta Soraluze lotzen dituen ohiko udako autobus zerbitzua jarri zuen martxan. Hondartzara joan nahi dutenek, Eibar-Soraluze arteko linea hartu beharko dute, honek gero Debara egiten duela bidaiariak autobusetik jaitsi gabe. Ordu-tegiak: 7.30-8.30-12.30-13.30-14.30-17.30.

Udaltzaingoen jakinarazi dute Debatik Soraluze bueltatzeko autobus zerbitzu zuzenik ez dagoela.

Jaietarako kartela aukeratu da

Jose Manuel Esnal elgoibartarrak bigarren jarraian irabazi du Santiago-Santa Ana jaietako kartel lehiaketa. "Kalejira" izeneko kartela aurkeztu zuen Esnalek eta Jai Batzordeak horixe aukeratu du aurtengo Santiago-Santa Ana jaietarako. Elgoibartarrak 300 euroko saria jasoko du datorren uztailaren 8an, arratsaldeko 19etan, udaletxean. Jaietako egitarauko azalaren irudia izango da "Kalejira" lana.



Carlos de Cos saritua izan da

Soraluzetarrak 2. eta 3. sariak eskuratu ditu "Fokatu Urola Garaia" argazki digitalaren lehiaketaren VII. edizioan. Bi diploma eta 200 eta 100 euroko bi sari jaso ditu. Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako udalek antolatzen dute lehiaketa honetan partehartzaileek "Mugikortasun iraunkorra" gaia jorratu behar zuten.

ARRANO
tabernia

etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua

etxera

MENDIZABAL
okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Balategieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE



Soraluzeko Euskal Jaiak

2011



IRENE ALVAREZ eskalatzailia

“Eskalatzeko rokodromo duin bat bihar dogu”

18 urteko gazte honi harkaitzetan gora egitea gustatzen zaio. Armiarmen antzera hankak eta eskuak erabiliz “boulder” izeneko eskalada modalitatea da berea. Txapelketa bitan hartu du parte eta maila bikaina erakutsi du bietan; faltan duena orain, arerioak dira.

Zerk bultzatuta hasi zinan eskalatzen?

Oin dala lau urte hasi nintzan, mutil laguna ezagutu neban eta bera oso zalia da. Sokiakin eskalatzen zeban, baina neri bildur pixkat emoten zostan, jausiari bildurra edo ez dakit. Hortik urtebetera blokiak edo boulderra probatzen hasi ginan mendixan. Eta ordutik geratu barik nabil.

Boulder izeneko eskalada modalidadia praktikatzen dozu zuk. Ze ezaugarri dittu?

Kirol eskaladia eta boulder izenekua dare, oso desberdinak dira.

Boulderrian indar gehixago egitten da denbora tarte txikixaguan.

Harkaitzak igotzia da helburua, haitz soltiak igotzen dittugu soka bare. Horregaittik, indarra denbora guztian euki bihar dozu. Eskalada deportibuan, esfortzua proportzionalaguna da. Hormiak euki leike pasu txarren bat, zailtasunen bat, baina gaintzian nahiko erreza da. Indarra ondo administratzia da gakua.

“Katu-hankak eta koltxonetia nahikua dira blokiak igotzeko”

Ze gantxo dauka boulderrak ba?

Alde batetik ez da praktikatzeko garestixa, katu-hankak eta koltxonetiakin listo zare. Giro hobia egoten da boulder praktikatzen dabenen artian. Kirol soziabliagua da, kuadrilan juaten gara blokez-bloke. Bestian ostera, bata paretan gora doa bidia aseguratzen eta bestiak sokiari eutsiz behetik begiratzen dotsa, lepoko min izugarrixaz amaitzen dau eta asper-asper eginda.

Zein da arriskutsuaguna?

Gurian ez zara igotzen hiru metro baino gehixagoko alturara eta inoiz ez da kolpe haundixa hartzen. Koltxoneta bat ipintzen da beti behian eta eskalatzen zarela jausten bazara, koltxonetian gainera zoiaz. Lesino gehixago egoten dira normalian, esginziak eta holakuak, baina ez dira kirol eskaladan besteko istripu larrixak izaten. Hor paretetik jausi ezkerro, bertan geratzeko arriskua daukazu.

Noiz hasten zara konpetizinetan pentsatzen?

Oin lau urte hasi nintzan eskalatzen eta azken bixak emon dittut pixkat serixuago. Juan dan urtarrilian Gasteizko Euskal Herriko Boulder Ligan hartu neban parte. Lau proba izan ziran, urtarrila eta martxua bittarteko asteburuetan jokutzen dira. Zela nere lelengo aldixa zan, maila herrikoian emon neban izena, jendian nibela ikusteko pixkat. Maila dezente hobia neukala ikustian, hurrengo hiru probak elite mailan jokatu nittuan eta lelengo sarixa eskuratu.



Gero Euskal Herriko Boulder Txapelketan be txapeldun...

Bai, maiatzian izan zan Elgetan. Haura serixuagua da, jende guztia begira igartzen dozu... 20 urtez azpikuen mailan neu izan nintzan neska bakarra... Jokatu aurretik sarixan 150 euroak neriak ziran ia... baina ez jata holan jokatzia gustatzen. Elite mailako neskekin konparatuta, 5etik 4. geratuko nintzan.

Ze erronka dittuzu? Egun batian horretara guztiz dedikatzea espero dozu?

Buf... oso-oso zaila da. Nik ez dot deskar-tatzen, ez dot ezetzik esaten. Nik segiduko dot eta datorrena datorrela, ondo egongo da. Irailian berriro topera ekingo dotset entrenamendueri. Negan eukiko dittut txapelketa gehixago eta hurrengo urtian nere burua fuerte ikusten badot 20 urtez azpiko mailan parte hartuko dot berriro.

Zenbat entrenatzen dozu?

Urte osua daroiat entrenatzen, astian lauzpabost bi-dar, lau orduz. Onena asteburuan kanpora juatia da, hori da prestakuntza onena.

Zein da zure lekuri gogokuena?

Albarracín, Teruelen. Urrin dago, bost bat ordutara. Ainsakin batera Espainiako herri ederrena izendatu zeben. Larraona, Nafarroan, be ondo dago,

“Boulderrian denbora tarte txikixan indar asko egin bihar da”

“Herrixan badago eskaladarako zaletasuna”

baina zailtasun haundixagokua da. Euskal Herrixan berriz, Oñatin bertan dago eskalatzeko aukeria, Araotzen, kirol eskaladia eta boulder-ekin egin leikez eta harri elegante batzuk deskubridu dittugu. Getarixa eta Zumaixa bittartian be badago leku bat eskalatzeko. Orokorrian hemengo harrixa labankor samarra da.

Soraluzen zaletasuna badago. Oin rokodromo bat falta da...

Soraluzen badago eskaladarako afizinua, hogei bat zaletu egongo dira. Falta dana da rokodromo duin bat. Bergarara edo Eibarrera juan biharrik ez izateko eta kirola bera bultzatzeko. Nik udalari esaten dotsatena da, ipini bihar badabe rokodromua, nerekin berba egitteko. Jeje. Ze ipini eta zela ipini oso inportantia da eta erabakitzen lagundu neike edota presa on eta egoki batzuk lortzen.

Irene Navalosan (Avila)
6B+ blokean gora

Euskal Herriko Boulder Ligako Txapelduna (Gasteizen)

Irene Alvarez (Soraluze 1992-08-27)

Euskadiko Boulder Txapelduna (Elgetan)

Harkaitz bat:
Teruelgo Alabarracinekua eta Burgosko Santa Gadea.

Eskalatzaille bat:
Atzerrixan Chris Sharma, Euskal Herrixan, Irati Anda.

Musikia:
Bob Marley entzunaz gustora eskalatzen dot.

Liburu bat:
Irakurtzia baino nahixago dot harkaitzian gora egin.

ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Azken bi aste hauetan uda bete-betean sartu da Euskal Herrian. Geografia osoan merkurioak aise pasa ditu 30 graduak eta hondartzak, igerilekuak eta leku freskoenak leporaino bete dira jendez. Soraluzetarrek zela egiten diote aurre beroari?

Zer egitten dozu holako bero sargorixen kontra?

ROSA MACIAS



Ez naiz etxetik urtetzen eta ur asko edaten dot. Bestela Debara juaten naiz, hondartzia asko gustatzen jata. Autobusian goiz juan eta trenian buelta. Ezozik be joku asko emoten dau holako egunetan.

CRISTINA ALBISUA



Etxian egon. Plaiara juatekotan Debara, baina ez askotan, ze kotxez juaten gara eta ezin izaten da apartatu. Herrixan geratzekotan terrazetan jarri edo errekonduan ibiltzen gara.

YASSINE KADDOURIN



Debara edo Eibarko pizinetara juaten naiz. Motorra daukatenez ez dot aparkatzeko problemarik eukitzen. Soraluzen geratzekotan garagardo freskua hartuta uxatzen dot bero dana.

ABEL OLAIZOLA



Aguantau! Ez daukat asitirik plaiarako eta gainera, ez naiz oso hondartza zalia. Mendi zaliagua naiz ni, gainera, paraje eder honetan bizitta! Etxian geratu bihar banaiz gela freskuenera josten dot, beti kerizpe bila.

Eman zure iritzia sarean




EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA
2011 / 2012

MATRIKULA OFIZIALA
Ekainaren 30etik uztailearen 14ra

HIZKUNTZAK:
ALEMANA, EUSKARA, FRANTSESA ETA INGELESA

Matrikula egin nahi dutenek **Internetez bakarrik** egin ahal izango dute **www.eoieuskadi.net** orrian. **Argibide gehiago:** **www.eoieibarheo.net** orrian edo **943200618** telefonoan.

Jardineta, 3 • 20600 Eibar

Plaza bete lagun Ezozin

Eguraldi ona egin zuen hilaren 19an Ezoziko jaietarako. Goizean trontza eta harri jasotze erakustaldian jende askok hartu zuen parte enborrak moztzen edo behintzat, saiatzzen. Armendi Jatetxean bazkaldu zuten gero eta arratsaldean Arnoren zezentxoekin jolasteko aukera izan zen.



Iturria: Lorea de Castro

Lasartearra txapelkun Plazatik-Gaztetxera sariketan

Hilaren 18an burutu zen Plazatik-Gaztetxera sariketako Soraluzeko kanporaketa. Sei bertsolarik hartu zuten parte eta Ane Labakak jaso zituen puntu gehien. Eneko Beretxinaga soraluzetar gaztea hirugarren sailkatu zen 183.5 punturekin. 40 lagun inguru batu ziren afaltzera eta guztira 70 lagunez inguratuta jardun zuten bertsolariak. Sailkapena horrela geratu zen: Ane Labaka, Eneritz Artetxe, Eneko Beretxinaga, Ion Mikel Mugika, Josu Urain eta Enaitz Alustiza.



Iturria: Endika Goigolana

Musika eskolak agurtu du ikasturtea

Ekainaren 17ko gauean asko izan ziren musika eskolako ikasleek eskaini zuten kontzertua ikustera hurbildu zirenak. Kontzertua eskolako txikien kantu eta dantzekin hasi zen eta ondoren eskolako instrumentu denak atera zituzten eta abesbatzak ere parte hartu zuen.

Sexperience eta Kupela San Andres auzoko jaietan

Uztailaren 10ean kanpai bueltarekin hasi eta 12ra bitartean luzatuko dira aurtengo San Andres auzoko jaiak. Herri afariak, kontzertuak, pilota partidak, zezentxoak eta poniak, meza,

umeentzako jolasak eta bertso saioak antolatu dituzte, besteak beste. Auzokoez gain, herritar denak gonbidatu nahi dituzte festara San Andres elkartekoek.

Uztailak 9 zapatua, GAZTIEN EGUNA

- 14:00etan** Jaien hasiera kanpai bueltarekin
- 18:00etan** Emakumeen pala txapelketako finala
- 20:30etan** Herri afaria
- 23:00etan** Sexperience eta Kupela taldeen kontzertua
- 02:30etan** Txerri-harrapatzea eta txokolate jana

Uztailak 10 domeka, JAI EGUNA

- 12:30etan** Meza
- 13:00etan** Atxotegi-Jauregi, Muguruza-Rezusta pilota partidak
- 13:00etan** Unai eta Enaitz trikitilariak eta B. Gaztelumendi eta M. Amuriza bertsolariak
- 14:30etan** Bazkaria bertsolariekin
- 18:00etan** III. San Andresko harria txapelketa
- 19:00etan** Bergarako zezentxoak eta poniak
- 19:00etan** Bola txapelketa
- 21:30etan** Afariak elkartean

Uztailak 11 astelehena, AUZOKOEN EGUNA

- 12:30etan** Meza
- 13:00etan** Umeendako jolasak
- 13:30etan** Emakumeen bola saria
- 14:00etan** Auzotarren bazkaria frontoian Ondoren, Lizaso eta Egaña bertsolariak eta Laja eta Lutxurdixoren erromeria
- 20:30etan** Afaria eta erromeria

**Urteko oroitzapen txarrak erreta daude sutan**

Usadioari kasu eginaz, San Juan egunaren bezperan asko izan ziren sutondora gerturatu ziren herritarrak. Pii-pilean Euskara Elkartekoek antzerki musikatu batez girotu zuten gaua. Gaztetxeko kideek berriz musika artean igaro zuten urteko gaurik motzena. Suaren gainetik salto eginaz eta urteko txarrak erreta itzuli ziren gehienak etxera.



GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30ETATIK AURRERA ZABALIK
**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

KM Desing
Diseinua eta Sormena
Poligono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Bederatzi soraluzetar Quebrantahuesos frogan



Ekainaren 18an Sabiñanigon hasi eta bukatzen den Quebrantahuesos bizikleta fro-



Iturria: Gaizka Larrañaga

garen XXI. edizioa jokatu zen. Somport, Marie Blaque, Portalet eta Hoz-eko portuak igarota, helmugara iristen lehen soraluzetarra Markel Galarraga izan zen, 8.715 parte hartzailearen artean 125. sailkatu zen. Guztira 9 herritarrek hartu zuten parte: Markel Galarraga, Ruben Lopez, Jon Oregi, Gaizka Larrañaga, Jon Lizarralde, Jose Antonio Plata, Ximun Larrañaga, Moises Arantzeta eta Lorenzo Alonso.

Emakumeen pala txapelketa finalerdietan da

Lau bikote sailkatu dira VI. Torituraren Aurkako Emakumeen Pala Txapelketako finalerdiak jokatzeko. Partidak datorren astean jokatuko dituzte eta finala uztailaren 9an arratsaldeko 18:00etan ospatuko da, San Andres auzoko pilotalekuan.

Finalerdietara:

Rosa E. – Alana B.
Arrate G. – Lidia F.
Amaia A. – Amaia A.
Irati I. – Nagore H.

Barçazaleen urteroko afaria



Iturria: Carlos de Cos

Urteroko ohiturari heldu eta hogeit lagun inguru batu ziren Barça taldeak egindako denboraldia ospatzeko. Giro onean, lagunartean afaldu eta argazkia atera zuten gero. Datorren urtean berriz batuko direla jakinarazi dute.

140 mendizale Urduñara txangoan

Mendi taldekoek aurreko asteburuan Urduñara eginitako txangoarekin agurtu dute irailera arteko egutegia. Zapatuan Nerbioi ibaiko ur-jauzia ikustera Joan ziren eta domekan Txarlazo mendia igo zuten. Izugarritzko beroa izan zuten eta beroari aurre egiteko arratsaldeak Urduñako igerilekuan bainuak hartzen igaro zituzten. Irailean ekingo diote berriz irteerei.



Iturria: Niko Mendia

EMAITZAK

PELOTA

Titin III – Zubieta	22
Aritz Lasa – Laskurain	10
Mtz de Irujo – Zabaleta	18
Gonzalez – Laskurain	22
Atxotegi – Altuna	17
Urdaniz – Azanza	22

FUTBOLA

Futbito txapelketa 2011

Kaztakoak – Super torpedos	5-6
Bar Intxisu – Arane	3-9
Real Coholicos – Eusko Label	0-3
Diego Valor – Joga Bonito	3-4
Artifices – Hola dok ala	1-1
Fronton team – Gaztetxea	22-1
Real Coholicos – Bar Intxisu	0-3
Eusko Label – Super torpedos	3-0
Lokalimotxo – Arane	10-6
Fronton team – Hola dok ala	7-4
Gaztetxea – Joga Bonito	0-3
Korta team – Artifices	2-10

AGENDA

PELOTA

Gaur 22:15ean Sopelan

Mtz de Irujo – Laskurain
Gonzalez – Zubieta

Uztailak 7 11:30ean Labriten

Olaizola I – Beloki
Apezetxea – Laskurain

Uztailak 10 17:00etan Labriten

Apezetxea – Laskurain
Arretxe II – Patxi Ruiz

Uztailak 13 22:15ean Labriten

Gonzalez – Laskurain
(Zehaztu gabe) – Patxi Ruiz

FUTBOLA

Futbito txapelketa 2011

Uztailak 1, barixakua:

19:00 Joga Bonito – Hola dok ala
20:00etan Super torpedos – Bar Intxisu

Uztailak 2, zapatua:

10:15 Lokalimotxo – Kaztakoak
11:15 Real coholicos – Arane
12:15 Fronton team – Artifices



Astelehenero kirol albistekak

ZORION AGURRAK



Maren Cordoba
Ekainan 27xan 4 urte!
Zorionak eta muxu haundi
bat Elene, Nora eta Mirenen
partez.



Lide Sudupe
Uztailan 1ian urtebete!
Zorionak poxpolintxo!
Muxu potolo bat danon partez,
bereziki Unaxen partez!




Antxon zubiaurre
Uztailan 8xan 7 urte!
Zorionak eta muxu haundi
bat etxekuen partez!



Fernan Oregi
Uztailan 2xan "treinta y
todos"! Zorionak hola segi
politta eta alaitxu, Maddi,
Xiker eta etxekuen partez!



Jacinto Gantxegi eta Pakita Unanue
Ekainan 29xan eta uztailan 9xan urtiak
betetzen ditzuzelako, zorionak eta
besarkada haundi bat familixakuen partez!




Zorionak Anetxu!
Ekainan 29xan 4 urte!
Etxekuen eta lagunen partez
muxu haundi bat, puzkarti!



Eneko Rez de Luzuriaga
Uztailan 25ian urtebete!
Zorionak polittori eta muxu
haundi bataitaxo, amatxo
eta Landerren partez!



Zorionak Maribi!!
Mila zorion loraeder!
Bizipozez betetako urte
zoriontsua opa dotsugu
Pil-pileaneko lagun danek!



Pendejillooooo
katxiporreta kroketa, beste
urtebete, atte zaharra, pila
pila patata tortila maite
zaitugu



Xiker Garro
Uztailan 15ian 3urte!
Gure artistiar zorionak eta
marrubizko muxutxuak bitxejo!

hildakoak

EUSEBIO LETE OREGI



LEHTIAKETA

► **Zein ageri da argazki honetan?**

► **Saria: Hondartzaz gozatzeko material sorta.**



AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► **Irabazlea: Mikel Recio**

► **Jose Luis Arizaga**, alkate ohia da aurreko aleko argazkixan agertzen zan soraluzetarra.



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com**

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Esteban Laskurain

SAN ANDRESKO JAIXAK OIN HAMAICA URTE

Erretratu honek 90. hamarkada inguruak dira, San Andres jaixetako domekan jasotakuak. Sasoi hartan Urrats Dantza Taldia osatzen zebe mutilak dantza ikuskizuna eskaini zebe, oin frontoia dagan lekuan zeguan plazan. Musika tablaua be bazeguala akordarazten dau argazki honek. Gonbidatutako musika taldiak kioskuan jotzen zebe eta herritarrak beheko plazan egitten zebe dantza. Oin 2000. urtian eraikittako frontoia dago lehengo plazian ordez. Tradizinuari heldu jako ondiok eta zezentxuak eta ponixak badauke tartia San Andres auzoko jaixetan.



JUANTXO HERMOSA ALBERDI

2010-06-29
I. URTEURRENA

“Izanaren izenean joan zinen,
zure izenaren izanak gurekin darrai”

Maitte zaittugunok



DIN arauak jarraituz
eta zehaztasun handiz egindako torniluak

T. 943 75 17 36 / 18 03
F. 943 75 22 95

Industrialdea 20 - 21
50 Posta Kutxatila
20590 Soraluze

JAVIER MESTRE

Elektrizitate eta telekomunikazioak

Tel 943 75 30 98

j_mestre_camino@hotmail.com

Telekomunikazio erregistro zbk. 10357

Tentsio baxuko instalazio erregistro zbk. 20/ccbi-2119

Pitxuri kalea 19-3, ezk. 20590 Soraluze

Egokitu ezazue zuen antena
kolektiboa LTDaren 2. faseerako

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



**ARMENDIA
JATETXEA**



Ezozu Auzoa 11
20590 Soraluze
T. 943 75 10 02

SUKALDARITZA
TRADIZIONALA

**Belarrak
Loradenda
eta
belardenda**

T. 943 75 30 11



Imana

Enkarguz
eskatutako janaria ere
prestatzen dugu

HARATEGIA

Kalebarren 3. Soraluze

Tel. 943 75 12 49

**TXURITXU
KAFETEGIA**



Mundu berria hitzordu duzu
harraratu behar
kafé, gazka, gazka le sari
parten gure aldetik.

Berriketa izan
nahi gendak ezartzen
gurea etxi izan
nau lepatuz espere duzu
leste harraratu izaten

25 urte zuzen zerbitzura zuzi esker.



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

**MABE
ILEAPAINDEGIA**

**ESTETIKA
SOLARIUM**



Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE



**Lakuesta
Optika**

Ikusmen arazozen frogak
eta argibideak
Parafarmaziako produktuak

Santa Ana, 22 C. behea
20590 Soraluze
T. 943 75 30 59

**Kontulan
Aholkularitza S.L.**

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tifonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA



**MARI MAR
HARATEGIA**

*Gurean
Euskal Herriko
produktuak!*

Tel. 934 75 24 02
Santa Ana kalea, 4 Soraluze

MGS
Mutua General de Seguros

Loli Nieves García

Santa Ana, 13 • SORALUZE
Tel. 943 75 14 57 • 646 522 659
E-maila: mdnievas@mgs.es
www.mgs.es



MUGITU GHERRIYA HERRI LIPDUBA



100, 300, 500, 700... plaentxiar
kalian dantzari elkarrekin

futbolistak, mekanikuak, tabernarixak,
dantzariak, musikariak, etxekogizonak
eta etxekoandriak, gurasuak, seme-alabak,
sukaldariak, dendariak...

Too, toozzz!



Antolatzailea:

Galtzagorriak

Jai Herrikoien Aldeko Gazte Mugimendua